

ONDARROA. Leonardo programako 120 bekatik bi institutuko ikasle birentzat izan dira

Lekeitiar bi Londresera joan dira bertako enpresetan praktikak egitera

Ondarroa-Lekeitio Institutoko Heziketa Ziklokoek enpresetan praktikak egiten dihardue

Nekane Akarregi |

Leonardo programari esker, Ondarroa-Lekeitio Institutuko Iñaki Goitisoleta eta Maria Abad ikasle lekeitiarrek Londresera urten eben joan zan zapatuan, bertan analisi eta kontroleko praktikak egitera. Bagilaren 23ra arte Erresuma Batuan egongo dira biak bertako laborategietan kimikako goi teknikari zikloen barruan.

Europako eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien diru laguntzagaz ateraten da aurrea Leonardo programa. Europako hainbat herritarra ikastera joateko aukera emon deutse 120 euskal ikasleri, eta Confesbaskek Euskal Herrirako bideratu dituan bekatatik bi Lea-Artibaira ailegatu dira.

Eduardo Zabala analisi eta kontroleko tutoreak adierazoz dauenez, «Leonardo programako beka horreek on-onak dira, ze plangintza eta azpiegi-

tura osoa ziurtatzen dabe. Bertan dagozan bitartean, familia banatan egongo dira ikasle biak: lotarako lekua, gosaria eta afaria ziurtatuta daukie. Tutorretza aldetik, euren beharra zaintzen, tutore bi izango ditue: bat bertakoa, eta ni neu Euskal Herritik». Bertara ailegatu eta batera, hamabost eguneko epea eukiko dabe biek jagoken ingeles teknika ikasteko, eta alkarrizketen ostean, bakotxa egokitutako enpresara eroango dabe.

Hirugarren urtea da Leonardo programa hau martxan dagoana, eta lehenengoa Ondarroa-Lekeitio Institutuak beka horreen eskaera egiten dauena. «Bost beka eskatu genduzan eta bi lortu; lehenengo aldia izateko ez dago txarto», gehitu dau Zabalak. Ikasleek euren artean egin dabe aukera. «Eskaintza guztiei egin jaken, baina nahi izan dabenen artean ingeles hizkuntza maila hobeto

menperatzen ebenentzat izan dira beka biak».

Etorkizuneko lanpostuak

Ondarroa-Lekeitio Institutuak formazino praktikoa eskaintzen dau heziketa zikloetan. Zikloaren arabera, hasiera ikastetxeetan bertan egiten dabe, eta ostean eskualdeko enpresetan praktikak egiten ditue.

Lau heziketa ikastaro emoten ditu Institutuak: analisi kimikoak eta kontrola, eta erizain laguntzaileak Ondarroako zentroan; eta administrazino kudeaketa, eta ekipo eta instalazino elektroteknika, Lekeitiokoan. Praktikei jagokonez kimikako goi teknikari, beste batzuen artean, araztegieta, zabortegeieta eta laborategi txikieta egin ahal

izaten ditue. Erizain laguntzaileak Galdakaoko ospitalean eta eskualdeko zahar egoitzeetan edo Zaldibarreko ospitalean egiten ditue praktikak.

Etorkizun handiko lanpostuak dirala azpimarratu dabe Institututik, «kimika teknikariak proiektazino handiko hainbat industrietan daukielako behar eremua: nekazaritza, elikadura, botiketa...»

ESKAINITZA

Erizain laguntzaile eta kimiko goi teknikari ikastaroak Ondarroan eta Bilbon baino ez dagoz

zain laguntzaileek be eskaera handia daukie. «Populazino zahartzeagaz batera, arlo horretako zeregieta gero eta eskari handiagoa dago», dino Zabalak.

Heziketa zikloetan, ikasle bakotzak bere kurrikuluma egiten ikasten dau, Interneten sartzen edo enpresa bat sortzen.

AGENDA

LEKEITIO

Korrika 12ko afaria: Zapatuan 22.00etan afaria egongo da Eskoletan. Txartela 1.500 pezetan dago salgai Aralde, loar eta Kili-Kalan.

MARKINA-XEMEIN

Goazen Korrika: Axpe Sagardotegian izango da zapatuan, 21.30ean, bertsolari eta guzti. Afari txartelak 3.000 pezetan dagoz saltzen Uztarrin eta Orbelan.

1971n jaiotako kintoen bazkaria:

Parte hartu nahi dabenez guztiek La amistad taberna edo Itxas Lur jatetxean emon behar dabe izena. Bazkaria apirilaren 1ean izango da Itxas Lur tabernan.

ONDARROA

Futbito batzarra: Iluntzeko 20.00etan Guzur Etxeko berbaldi aretoan izango da Futbito batzarra. Garrantzi handiko batzarra da, bertan txapelketa eta egunak zehaztuko diralako.

Hautesleer zerrenda, danen begitara:

Maiatzeko hauteskundeak dirala eta, Udaletxean, errolda herritarren begi bistan egongo da. Ikusi eta erreklamazioak egiteko epea apirilaren 2an amaituko da.

Euskera batzardea: Gaur arratsaldeko 19.00etan batuko da Udaletxean. Gaia: Udal Euskararen Erabilera planaren aurkezpena.

Korrika 12ko denda: Zabalik egongo da apirilaren 1era arte, Udal Erakusketa Aretoan. Bertan aurtengo edizinoako materiala lortu leiteke.

LEA-ARTIBAI. Euroa erabilten ikasteko benetako aprobak egiten hasi dira



**EURO
BIZKAIA**

**EUROARI BURUZKO
INFORMAZIOA**

LEA ARTIBAI
Lekeitio, Ondarroa
Markina-Xemein

EURO KALEA

Martxoaren 26tik apirilaren 1erarte

Salerosketa-simulazioak
eurotan 150 merkatal establezimendutan

Txekearen trukea eurotan
Eurobizkaia bulegoetan
(Hiru herrien
Turismo Bulegoetan)

**EUROARI BURUZKO BIZKAIKO INFORMAZIO
ZENTROA - EUROALBISTEAK**

K/ Máximo Aguirre, 4 zkia
48011 Bilbao
Tel.: 94 439 58 58. Fax.: 94 439 67 00
E-Mail: info@eurobizkaia.net
www.eurobizkaia.net



Eurora gitxika-gitxika ohitzen joateko aukera

Aste honetan zehar Euro-kale programa martxan egongo da Lea-Artibai eskualdean. Azkenean Lekeitio, Markina-Xemein eta Ondarroako 150 merkataria baino gehiagok parte hartzen dihardue txanpon barrira ohitzen joateko saiakera honetan.

Atzo, hasi eta batera, ugari izan ziran turismo bulegoen alboan ipini dituen erakustokietara hurre-ratu ziranak. Bertan jaso zituen herritarrek monetaren ordekoak. Euren ibiliko dira batetik bestera egunokaz, eta, ganera, sariak jasoteko aukera be eukiko dabe. Besteak beste, bidaia bat zotz egingo da. Baina horretarako jokoan parte hartu behar, eta horretan hasi ziran herritarrek. Argazkian, Jaione Murelaga Lekeitioko alkatea denda baten euroekin ordaintzen.